

## **Foru garraioa doakoa izango da gaur, Autorik gabeko Europako Eguna ospatzeko**

*Neurriak mesede egiten die Alavabuseko 1-16 lineen, Gasteiz Mirandarekin eta Durangorekin lotzen dituzten 18. eta 19. lineen eta eskualdeko garraioaren erabiltzaileei*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 22a.-** Autorik gabeko Europako Eguna ospatzeko, gaur, doakoak izango dira bidaiari guztientzat garraio txartel hauek: Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak diruz lagundutako herri arteko autobus lineetakoak eta eskualdeko garraio zerbitzuaren lineetakoak.

Neurriak mesede egingo die honako linea hauen erabiltzaileei: Araba Erdialdeko, Arabako Errioxako eta Aiarako emakidetako lineak (1.-16.); Gasteiz Miranda de Ebroarekin eta Durangorekin lotzen duten lineak, 18. eta 19. lineak, hurrenez hurren; eta lurralde historikoko landa herriguneei zerbitzu ematen dieten eskualdeko garraioaren linea guztiak.

[www.araba.eus/alavabus](http://www.araba.eus/alavabus) web orrian daude kontsultagai emakida horien lineetako ibilbideak, geralekuak eta orduak.

Blanca de la Peña Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak azaldu duenez, ekimen horren bidez foru garraio publikoaren erabilera sustatu nahi da norberaren autoaren alternatiba gisa, European mugikortasun jasangarriaren alde ezarritako politiken ildotik, bai eta herritarrei zerbitzu hori eta zerbitzu hori osatzen duten lineak ezagutaraztea, eta garraio hori ohikotasunez erabiltzen dutenei aintzatespena egitea.

“Arabarrek egoera zail honetan foru garraioarekin duten fideltasunaren aintzatespena egiten dugu horrela. Arabako herritarren eskari maila altua da Alavabuseko linea erregularretan eta eskualdeko garraio zerbitzuan, covid-19k sortutako osasun krisia gorabehera, eta konfiantza hori eskertu nahi diegu”, gaineratu du.

Alavabuseko lineen eskaria 2019ko abuztuan erregistratutakoaren % 83,5 izan da joan den abuztuan. Ekitaldi hartan egin zen, hain zuzen ere, bidaiarien marka historikoa foru garraioan. Eskualdeko garraio lineen kasuan, berriz, datuak hobeak dira, erabilera % 58 hazi baita 2021eko urtarriletik abuztura bitartean. Bi modalitate horiek zerbitzuen % 100eko eskaintzarekin ari dira lanean.

Gaur foru garraioa erabiltzen duten bidaiariek oroitzapenezko txartel berezi bat jasoko dute, Autorik gabeko Europako Egunari berariazko aipamena egingo diona.

**Garraio publikoa, mugikortasun segurua eta jasangarria**

Bestalde, Alavabuseen eskari handiena duten lineetako zenbait autobusek eta Eskualdeko Garraioaren zerbitzua ematen duten ibilgailuek biniloak eta 'Garraio publikoa, mugikortasun segurua eta jasangarria' lema dute jarrita alboetan, bai eta aipamen grafikoak ere foru garraioan ezarritako segurtasun neurriei buruz eta mugikortasun jasangarriago eta ingurumenarekiko begirunetsuago bati egiten dioten ekarpenari buruz.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak gogorarazi du indarrean jarraitzen dutela zenbait segurtasun neurri, erabiltzaileen, enpresa emakidadunen langileen eta profesionalen osasuna babesteko, hala nola maskara nahitaez erabiltzea, ahal bada BAT txartela erabiltzea tiketa ordaintzeko eta garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena areagotzea.

Europako Batzordearen Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiak bultzatzen du Mugikortasunaren Europako Astea egin dadila urtero irailaren 16a eta 22a bitartean, autoa erabili ordez garraio publikoa edo bizikleta erabiltzeaz edo joan-etorriak oinez egiteaz sentibilizatzeko, eta garraibide horiek sustatzera animatzen ditu tokian tokian erakundeak.

Europako Batzordeak 2021eko kanpainarako aukeratu duen gaia "Mugikortasun jasangarria, osasungarria eta segurua" da, eta leloa, berriz, "Zure osasunagatik, mugi zaitetz modu jasangarrian".

Halaber, Europar Batasunaren ekimen horren barruan, irailaren 22a Autorik gabeko Europako Eguna izaten da urtero.